## JUSTIZIAKO LAN-POLTSAK BIRBAREMATZEKO MEREZIMENDUEI BURUZKO AZALPENA

**Zein da Justizia Poltsak eguneratzeko kontuan hartu den erreferentziako EPEa?**

- **JUS/241/2022 Agindua**, martxoaren 24koa, Justizia Administrazioko Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegora barne-igoeraren bidez sartzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten duena.
- **JUS/242/2022 Agindua**, martxoaren 24koa, Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegora barne-igoeraren bidez sartzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten duena.
- **JUS/1254/2022 Agindua**, abenduaren 7koa, Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetan txanda irekiko sistema orokorraren bidez sartzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten duena.
- **JUS/1287/2022 Agindua**, abenduaren 22koa, Auzitegiko Medikuen Kidego Nazionalean txanda irekiko sistema orokorraren bidez sartzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten duena.

## ACLARACIÓN CON RELACIÓN A LOS MÉRITOS PARA LA REBAREMACIÓN DE BOLSAS DE TRABAJO DE JUSTICIA

**¿Cuál es la OEP de referencia, que se ha tomado en cuenta para la actualización de la Bolsas de Justicia que se está llevando a cabo?**

- **Orden JUS/241/2022,** de 24 de marzo, por la que se convoca proceso selectivo para acceso por promoción interna, al Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa de la Administración de Justicia.
- **Orden JUS/242/2022,** de 24 de marzo, por la que se convoca proceso selectivo para acceso, por promoción interna, al Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa de la Administración de Justicia.
- **Orden JUS/1254/2022,** de 7 de diciembre, por la que se convoca proceso selectivo para acceso, por el sistema general de acceso libre, a los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial de la Administración de Justicia.
- **Orden JUS/1287/2022,** de 22 de diciembre, por la que se convoca proceso selectivo para ingreso, por el sistema general de acceso libre, en el Cuerpo Nacional de Médicos Forenses.

**Zein hautaketa-prozesuren emaitzak hartzen dira kontuan lan-poltsa honetan?**

2004ko urtarrilaren 1aren ondoren deitutako hautaprobei dagokien oposizio-fasean gainditutako ariketa bakoitza bi punturekin baloratuko da, aurreko puntuan zehaztutako erreferentziazko EPEetara artekoak barne. Halaber, enplegu publikoko eskaintzetan lortutako puntuazioa metatu egingo da.

Soilik hartuko dira kontuan, eta zenbatu, 2004ko urtarrilaren 1aren ondoren deitutako eta dagoeneko amaituta dauden hautaproben oposizio-fasean gainditutako ariketak (amaituta dauden azken deialdiak aurreko puntuan adierazitako berak dira).

Gainditutako ariketa bakoitza bi punturekin baloratuko da, eta metatu egingo dira bai hautaproba bereko ariketak (posible da deialdi batean ariketa bat baino gehiago gainditu izana) baita beste hautaproba batzuetakoak ere.

**Zer zerbitzu hartzen dira kontuan?**

Justizia Administrazioan emandako zerbitzuak soilik hartzen dira kontuan, honako kidego hauetakoak hain zuzen ere: laguntza judiziala, izapidetza, kudeaketa, Justizia Administrazioaren letraduak, epaileak, magistratuak, abokatu fiskalak eta fiskalak.

**¿Los resultados de qué procesos selectivos se tienen en cuentan en esta bolsa?**

Cada ejercicio superado en la fase de oposición correspondiente a pruebas selectivas convocadas con posterioridad al 1 de enero de 2004 hasta las OEPs de referencia especificadas en el punto anterior se valorará con dos puntos, acumulándose la puntuación obtenida en las distintas ofertas de empleo público.

Únicamente se computarán los ejercicios superados en la fase de oposición de aquellas pruebas selectivas convocadas con posterioridad al 1 de enero de 2004 y que estén finalizadas (las últimas convocatorias finalizadas son las indicadas en el punto anterior).

Cada ejercicio superado se valorará con dos puntos, acumulándose la superación de los ejercicios tanto de una misma prueba selectiva (se han podido superar más de un ejercicio de una convocatoria), como de los correspondientes a otras pruebas selectivas.

**¿Qué servicios prestados se tienen en cuenta?**

Únicamente se tienen en cuenta los servicios prestados en la Administración de Justicia (en los cuerpos de auxilio judicial, tramitación, gestión, letrado/a de la Administración de Justicia, juez/a, magistrado/a, abogado fiscal y fiscal).

**Zer titulazio baloratzen dira merezimendu gisa?**

- 2022ko uztailaren 11ko Aginduaren 12.5 artikuluan kidego bakoitzerako adierazten diren titulazioak soilik baloratuko dira merezimendu gisa, betiere dagokion lan-poltsan sartzeko baldintza ez badira. Masterrak ez dira baloratuko.

- Kudeaketa Kidegoko lan-poltsari dagokionez, Zuzenbidean lizentziatutako hautagaien kasuan betekizun gisa hartuko dira lehen hiru ikasturteak eginda izatea, eta merezimendu gisa baloratuko da lizentziatura (azken hori izateagatik 3 puntu emango zaizkie Zuzenbidearen arloan). Zuzenbideko gradua betekizun gisa hartzen da, eta, beraz, ez ditu 3 puntu gehituko merezimenduetan, salbu eta lan-poltsa horretan sartzeko betekizun gisa beste diplomatura, gradu edota lizentziatura bat eskatzen badute.
  Beste kidegoetan balorazio bera ematen zaie Zuzenbideko graduari eta lizentziaturari.

- Kudeaketa Kidegoko lan-poltsari dagokionez, Zuzenbidean lizentziatutako hautagaiei 3 puntu emango zaizkie Zuzenbidearen arloan (sartzeko baldintza gisa lehen 3 ikasturteak hartuko dira kontuan).

**¿Qué titulaciones se valoran como méritos?**

- Se valorarán como mérito únicamente las titulaciones que se indican en la Orden de 11 de julio de 2022, artículo 12.5 para cada Cuerpo, siempre que no sean el requisito para el acceso a la bolsa correspondiente. No se valorarán másteres de ningún tipo.

- En la bolsa del Cuerpo de Gestión, las personas candidatas con Licenciatura en Derecho, se consideran como requisito los tres primeros cursos y como mérito la licenciatura, valorándoles con 3 puntos en el apartado de Derecho. El Grado en Derecho se considera como requisito por lo tanto no suma los 3 puntos de mérito, a menos que tengan otra diplomatura, grado o licenciatura como requisito para acceder a dicha bolsa.
  En los otros cuerpos se le da la misma valoración al Grado y a la Licenciatura en Derecho.

- En la bolsa del Cuerpo de Gestión, a las personas candidatas con Licenciatura en Derecho, se les valora con 3 puntos en el apartado de Derecho (como requisito de acceso se consideran los 3 primeros cursos).

Zuzenbideko gradua betekizun gisa hartzen da; beraz, beste diplomatura, gradu edota lizentziarik izan ezean, ez da punturik emango.

Gainerako kidegoetan balorazio bera ematen zaie Zuzenbideko graduari eta lizentziaturari (ez baitira sarbiderako baldintza).

- Izapidetze eta Laguntzako kidegoei dagokienez, soilik baloratuko dira goi-mailako titulazioetako merezimenduak, **gehienez puntu 1 edota 0,5**, hurrenez hurren eta kidegoaren arabera.

Adibidea: Izangai batek Zuzenbideko lizentzia edota gradua baldin badu, 3 merezimendu-puntu izango ditu Zuzenbide arloan; horrez gain, izangai berak Lan Harremanetako diplomatura eta Zientzia Politikoetako gradu bat baldin baditu, merezimendu-puntu 1 baino ez du izango “Beste batzuk“ atalean.

El Grado en Derecho se considera como requisito por lo que de no disponer de otra diplomatura, grado o licenciatura, no se puntúa.

En el resto de cuerpos se le da la misma valoración al Grado y a la Licenciatura en Derecho (por no ser requisito de acceso).

- En los cuerpos de Tramitación y Auxilio solo se valoran los méritos de la titulación superior que se tenga, **con un tope de 1 punto o de 0,5 puntos**, respectivamente en el cuerpo de que se trate.

Ejemplo: Si una persona candidata tiene una licenciatura o grado en Derecho, tiene 3 puntos de mérito por Derecho, si además tiene una diplomatura en Relaciones Laborales y un grado en Ciencias Políticas, solo va a tener 1 punto de mérito en Otros.